

EUSKAL HERRIA

Egilea: Goizane Etxeberri-Lopepe
Doinua : *Iparragirre abila dela*

1

Gorri xuria eta urdina
edo bestela berdea,
gero natura itsasopean
fite ito zen ordea.
Xutitzen entseatu zen
ez zuen deuse lortzen
hantxe egon zen gordea.
Baina holako egoretan
paso egin behar dea ?

3

Pasaportea, autobus karta
identitatearena,
gure hautuak bazterrez utziz
betetzen daukute dena.
Hautatzen dut nor nizan,
zer nahi dutan izan
hori baita hoberena
Euskual Herriko eskualduna niz
eskuaraz mintzatzen dena !

5

Euskal Herrian, Seaska, IKA,
E.T.A., arma, presondegi,
ibilbidearen bide erdian
girela hor da ageri.
Arbasoek bezala,
argiratzuz itzala,
indarrak egiten segi.
Euskal Herria unibertsoa
bezain luzaz bizi bedi !

2

Jende ainitzek lagundu zuten
Euskal Herria bizitzen
euskaraz edan, euskaraz jan ta
euskaraz arnasa hartzen.
Eta Frantziak kexu,
botatu zion : « E, zu,
ez zitela has harrotzen
ene menpean baitzira oino
paper guzietan agertzen! »

4

Euskal Herriak pasatu ditu
xutik, forman ainitz aro
ta agertu da mendetik-mende
gero eta azkarrago
Iragana atxeman
etorkizuna eman
dena gure esku dago
ondokoeri utziko dugu
duguna baino gehiago

IZENGABEA